



**UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 02/2018**

L A S A R T E - O R I A  
KO UDALBATZARRAK 2018 KO  
URTARRILAREN 23AN EGINDAKO EZ  
OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN  
**EXTRAORDINARIA** CELEBRADA POR  
EL PLENO MUNICIPAL DEL  
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-  
ORIA EL DÍA **23 DE ENERO DE 2018.**

**ETORRITAKOAK:**

**ASISTENTES:**

ALKATE LEHENDAKARIA:  
ALCALDE-PRESIDENTE:

D. Jesús Zaballos de Llanos jn. (PSE-EE-PSOE)

ALKATEORDEAK:  
TENIENTES DE ALCALDE:

D<sup>a</sup> Lourdes Acevedo Beldarrain and. (PSE-EE-PSOE)  
D. Agustín Valdivia Calvo jn. (PSE-EE-PSOE)  
D<sup>a</sup> Maite Iglesias Sánchez and. (PSE-EE-PSOE)  
D. Jesús Alonso Ocáriz jn. (PSE-EE-PSOE)  
D<sup>a</sup> Nuria Fernandez Castrillo and. (PSE-EE-PSOE)

ZINEGOTZIAK:  
CONCEJALES:

D. José M<sup>a</sup> Urdampilleta Zubitur jn. (PSE-EE-PSOE)  
D. Pablo Barrio Ramirez jn (EH BILDU)  
D<sup>a</sup> Estitxu Alkorta Barragán and (EAJ-PNV)  
D. Jon Antxordoki Rekondo jn. (EAJ-PNV)  
D. David Ares Rodriguez jn. (ADLOP)  
D<sup>a</sup> Alicia Garcia Patino and. (ADLOP)  
D. Alejandro Sáenz Muriel jn. (PP)

IDAZKARIA:  
SECRETARIO:

D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn.

BEHIN-BEHINEKO KONTUHARTZAILEA: D. Enrique Lazkano Gaitte jn.  
INTERVENTOR ACCIDENTAL:

**EZ ETORRIAK:**

**NO ASISTENTES:**

KONTUHARTZAILEA:  
INTERVENTOR:

D. Ion Murua Guinea jn.

ZINEGOTZIAK:  
CONCEJALES:

D<sup>a</sup> Leire Elizegi Beloki and. (EH BILDU)  
D. Gorka Lizarraga Erro jn. (EH BILDU)  
D<sup>a</sup> Kristina Bernal Etxeberria and. (EH BILDU)  
D. Arkaitz Naya Carrasco jn. (ADLOP)



Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2018ko URTARRILAREN 23ko 09:00 zirelarik, alde zurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús M<sup>a</sup> Zaballo de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratu deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

## 1. - ALOKABIDE ETA UDALAREN ARTEKO KOLABORAZIO-HITZARMENAREN ONESPENA.

Ikusirik Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzorde Informatiboak eta Kontuetako Berezikiak, 2018ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran emandako diktamina, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

**Lehen eta bakarra.-** Udal jabetzakoak diren alokairuko etxebizitzak kudeatzeko, Alokabide eta Udalaren arteko kolaborazio-hitzarmenaren onestea.

Dena dela, esandako organoak egokien estimatzen duena ebatziko du.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 09:00 horas del día 23 de ENERO de 2018, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús M<sup>a</sup> Zaballo de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

## 1.- APROBACIÓN CONVENIO COLABORACIÓN ALOKABIDE-AYUNTAMIENTO.

Visto el dictamen emitido por la Comisión de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas en reunión celebrada el 17 de enero de 2018, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD, toma el siguiente acuerdo:

**Primero y único.-** Aprobar el convenio de colaboración Alokabide-Ayuntamiento para la gestión del alquiler de las viviendas municipales.

No obstante lo cual dicho Órgano resolverá lo que estime más procedente.



Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta esaten du aurreko legealdian ados zeudela honekin, beraz ezezko botorik ezin zutela eman, ados egoten jarraitzen bait dute. Aipatzen du pena pixka bat ematen diela akordioa lortzen tardatu den denboragatik, baina ados daudela azken finean.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du lehenik eta behin, hemen batzuk ez badira etorri, ez dela lo geratu direlako, baizik eta lanean ari direlako. Gaineratzen du eskertuko luketela horrela Plenoak arratsaldetan planteatzea, zinegotzi guztientzat errazagoa izango litzakeelako etortzea. Gaiari helduz, azaltzen du aurreko legealdian ere planteatu zutela, bide horretan martxan jarri eta lehenengo kontaktuak eduki zituztela, baina azkenean ez zela gauzatzerik izan, batez ere etxeetan arazoak zeudelako, konponketa beharrak etab. Jarraitzen du esaten ados daudela hitzarmenarekin, azkenean Udalari lan karga bat kentzen zaiola, horretarako Alokabide bezalako erakunde bat dagoela, bere funtzioa hori dela, eta beraz ados daude egindako planteamenduarekin eta hitzarmen bat sinatzearekin. Bestalde, kritiko azaldu nahi dute puntu batean, hain zuzen, etxebizitza hauetan sartu ahal izateko, Lasarte-Orian 3 urtez errolatuta egon beharraren baldintzarekin. Aipatzen du hori beste herrietan ez dela gertatzen, eta beraien ustez horrelako baldintzak jartzea guztiz insolidarioa dela, herritar guztiek eskubide berbera bait daukate etxebizitza bat edukitzeko, eta bereizketak egitea ez zaie egokia, eta batez ere ez zaie justua iruditzen. Horren atzetik ikusten dutena, ez dakiela populismo hitza den egokiena, baina bai jendearen aurrean ondo geratzea dela, nolabait produktu bat saltzea, eta hemen ez daudela produktuak saltzeko, herritar guztien eskubideak defendatzeko baizik.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para hacerle una puntualización al Sr. Barrio en relación a la convocatoria del Pleno extraordinario. Explica que todos los concejales de la corporación municipal, tienen derecho por ley de salir de sus lugares de trabajo para cumplir sus funciones como cargo público en las administraciones públicas. Y eso tiene que cumplirlo cualquier empresa, por lo tanto, independientemente del horario que se establezca, los corporativos pueden ir donde sus jefes con el orden del día, y pedirles las horas necesarias para el ejercicio de sus funciones como cargo público. Por lo que la hora de la convocatoria del Pleno, no es ninguna excusa para no acudir a la misma.

## 2.- TASA BERRIAREN EZARPENA: "UDAKO TXOKOAK".

Ikusirik Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzorde Informatiboak eta Kontuetako Bereziak, 2018ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran emandako diktamina, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

**Lehena.-** 6. Ordenantza Fiskala Zerbitzu Publikoak Eskaini Eta Jarduera Administratiboak Burutzeagatik Ordaindu Beharreko Tasen Ordenantza Arautzailea

## 2.- ESTABLECIMIENTO NUEVA TASA: "UDAKO TXOKOAK".

Visto el dictamen emitido por la Comisión de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas en reunión celebrada el 17 de enero de 2018, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD, toma el siguiente acuerdo:

**Primero.-** Se modifica la Ordenanza Fiscal Nº 6 Reguladora De Tasas Por Prestación De Servicios Público Y Realización De Actividades Administrativas en los siguientes



aldatzen da ondoko termino hauetan:

Tasa berri bat ezartzen da, 22.a, ondoren zehazten diren egitura, tarifak eta aplikazio arauak.

Ordenantzaren 5. artikulua 2.1.1. atala aldatu egiten da, eta ondorengo zerbitzua erantsen zaio:

\* Udako Txokoak.

**Bigarrena.-** 16. Ordenantza Lasarte-Oriako Udal-tasen Eta Prezio Publikoen Exentzioei eta Hobariei buruzko arautegiaren erregulatzailerak aldatzen da ondoko termino hauetan:

Ordenantzaren 1. eta 2. artikulua aldatzen dira, eta ondorengo zerbitzua erantsen zaie:

\* Udako Txokoak.

**Hirugarrena.-** Honako erabaki behin-behineko hau, bai halaber aipatutako Ordenantzaren testua, jendaurrean ikusgai jarriko dira 30 egun balioduneko epean, arren eta interesatuek espedienteaz azter ahal dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ahal ditzaten.

**Laugarrena.-** Inolako erreklamaziorik egin gabe informazio horren erregelamenduzko epea iragan denean, hartutako erabakiak eta adierazitako dokumentuak behin-betiko onetsizat hartuko dira, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Adierazitakoa gorabehera, organo horrek ebatziko du egokiena deritzona.

términos:

Se establece una nueva Tasa la 22 conforme a la estructura, tarifas y las Normas de aplicación que a continuación se detallan.

Se modifica el apartado 2.1.1. del artículo 5 de la Ordenanza al que se le añade el siguiente servicio:

\* Udako Txokoak.

**Segundo.-** Se modifica la Ordenanza 16 Reguladora del Reglamento sobre las Exenciones y Bonificaciones de Tasas y Precios Públicos Municipales en Lasarte-Oria. en los siguientes términos:

Se modifican los artículos 1 y 2 de la Ordenanza, a los que se les añade el siguiente servicio:

\* Udako Txokoak.

**Tercero.-** El presente Acuerdo provisional, así como el referido texto de la Ordenanza, se expondrá al público durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

**Cuarto.-** Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido ninguna reclamación, se tendrán por aprobados definitivamente los acuerdos adoptados y los documentos expresados, sin necesidad de nuevos acuerdos.

No obstante lo cual dicho Órgano resolverá lo que estime más procedente.



Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta esaten du Euskara Zerbitzuko Lehendakari den heinean, "Udako Txokoak" udal zerbitzu bihurtuko dituztela aurten. Gaineratzen du, dena ondo joan ez gero, pleguak udaberrian aterako direla, eta eskerrak ematen dizkie alderdi guztiei beraien aldeko bozkagatik.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du honetan ere aldeko bozka eman dutela, baina honetan ere asmo kritiko batekin. Ez berez gaur hemen bozkatzen duten neurri konkretuagatik, baizik eta beraien kontrako jarrera adierazi nahi dutela tasa honen jatorrian dagoen kontuarekin. Azaltzen du badakitela legeak enpresen arteko konpetitibitatea egotea eskatzen duela etab., baina badakite horren atzetik ere zer dagoen, eta baita zerbitzu hau nola, nondik, eta zein helbururekin sortu zen. Gaineratzen du Ttakun eta Udalaren arteko elkarlanaren ondorioz sortu zela, helburu guztiz sozialarekin, herritarrei zerbitzu bat emateko, eta ez hori bakarrik, baizik eta euskaraz emateko, eta euskara sustatzeko. Beraz, zerbitzu honen atzean inongo momentuan ez da egon etekina ateratzeko asmorik. Aipatzen du badakizkitela legearen atzetik zein interes eta ideologia dauden, asmoa azken finean, zerbitzu publiko bat pribatizatzea dela. Segitzen du esaten epe motzean ziurrenik Ttakunek bere eskaintza aurkeztuko duela, lortuko duela, eta betiko moduan egingo dela dena, litekeena dela hau. Baina azken finean merkatu eremu bat irekitzen dela, eta azkenean zerbitzu honek enpresa handi baten esku bukatuko duela, zoritxarrez beste zerbitzu askorekin gertatzen den moduan. Horregatik beraien ustez Lasarte-Oriako Udalak, baina oro har instituzioek, bi kontzepturen artean bereizi beharko luketela, hau da, alde batetik ekonomia soziala, eta bestetik etekina bilatzen duen ekonomia, Orain arte Ttakunek ekonomia sozial horren barnean egin duela lan azpimarratzen du. Hain zuzen, herritarrei zerbitzu bat emateko, eta ez etekina ateratzeko. Hortaz, eskatu nahi dute aurrera begira, jakinda legeak zer esaten duen, zirrikituak bila ditzaten halako pribatizaziorik ez gertatzeko, hau da, halako zerbitzuetan, etekin asmorik gabeko ekimenei aukera emateko.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y dice que como le dijo en la comisión, lo que se está haciendo sacando la licitación de los "Txokos de Verano" no es una cuestión de privatización, sino de transparencia, porque como sabe, no se puede dar a dedo un servicio que se está prestando a través de un convenio nominativo. Cree que en dicha comisión le pusieron un ejemplo muy claro, esto es, nadie tendría dudas de que habría que sacar una concurrencia pública en el servicio de la Residencia de Ancianos, o en el servicio de Limpieza Viaria, o la Limpieza de Edificios, etc. Para que así todas las entidades, asociaciones o empresas que se quieran presentar lo puedan hacer en igualdad de condiciones, y una vez establecida la mesa de contratación y las puntuaciones correspondientes, adjudicarlo. Como ha dicho el Sr. Barrio, puede ser que Ttakun sea la adjudicataria de los servicios de los Txokos de Verano, pero hay que hacerlo en pública concurrencia. Añade que no es una cuestión de privatizar y beneficiar a empresas privadas, sino una cuestión de transparencia y publicidad, y que no haya beneficios de ciertas personas, en perjuicio de la colectividad, y por eso se ha tomado esta decisión. Quiere señalar que esto no se ha hecho en contra de Ttakun, sino de acuerdo con la propia asociación, ya que entendían que el procedimiento que se tenía que seguir era este.



**3. – “ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI LANGUNTZAILEA” LANPOSTU BERRIARI DAGOKION HIZKUNTZA-ESKAKIZUNARI ETA DERRIGORTASUN-DATARI BURUZKO BATZORDEBURUAREN PROPOSAMENA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK HELARAZITAKO TXOSTENA IKUSIRIK.**

Ikusirik Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2017ko abenduaren 4an egindako bilkuran emandako diktamina, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamabi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP, 2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU) eta abstentzio batekin (1 PP), honako akordioa hartzen du:

**3.- PROPUESTA DE LA PRESIDENCIA SOBRE EL PERFIL LINGÜÍSTICO Y LA FECHA DE PRECEPTIVIDAD DEL NUEVO PUESTO DE “AUXILIAR ADMINISTRATIVO DE SERVICIOS”, A LA VISTA DEL INFORME REMITIDO POR LA VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA.**

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en sesión celebrada el día 4 de diciembre de 2017, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con doce votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP, 2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU) y una abstención (1 PP), toma el siguiente acuerdo:

Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo	Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones	Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico	Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad
Zerbitzuetako Administrari Laguntzailea/ Auxiliar Administrativo de Servicios	1	2	2017/09/12

Ikusirik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2017ko urriaren 31n, egindako txostena, proposamenarekin bat datorrena.

Visto el informe emitido al respecto por la Viceconsejería de Política Lingüística con fecha 31 de octubre de 2017, que es conforme a dicha propuesta.

Toma la palabra el Sr. Sáenz y dice que se han abstenido porque les gustaría que, no solo en Lasarte-Oria, sino a nivel de Guipúzcoa y País Vasco, se bajase la exigencia de los niveles de euskera para acceder a puestos de la administración pública. Y ciñéndose a Lasarte-Oria, para adaptarse a la realidad lingüística del municipio, porque sobre todo son un pueblo con mucha gente parada, y creen que tienen que quitar trabas para dar facilidades a que el mayor número de vecinos posible pueda acceder a la administración local. En especial pensando en las



personas que tienen más de cuarenta años, que son los que más riesgo corren de pertenecer al grupo de parados de larga duración.

Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta Sáenz jaunari esaten dio harrিতuta utzi diola, baina horrelaxe segitzeko, bide onetik doala eta. Azaltzen du beraiek alde bozkatu dutela, azkenean euskara zerbitzuak bigarren perfila ikusten bait zuen egokien, Jaurlaritzak ere bigarrena proposatzen zuen, eta beraz, bia jarri zaio, eta ados daude.

**4. – SAILKATU BERRI DEN  
"DIRUZAINA" LANPOSTUARI  
DAGOKION HIZKUNTZA-  
ESKAKIZUNARI ETA  
DERRIGORTASUN-DATARI BURUZKO  
BATZORDEBURUJAREN  
PROPOSAMENA, HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK  
HELARAZITAKO TXOSTENA IKUSIRIK.**

**4.- PROPUESTA DE LA PRESIDENCIA  
SOBRE EL PERFIL LINGÜÍSTICO Y LA  
FECHA DE PRECEPTIVIDAD DEL  
PUESTO RECIEN CLASIFICADO DE  
"TESORERO", A LA VISTA DEL  
INFORME REMITIDO POR LA  
VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA  
LINGÜÍSTICA.**

Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta esaten du aurreko kasuan gertatu ez den bezala, kasu honetan euskara zerbitzuak laugarren perfila ikusten duela egokien, Jaurlaritzak ere laugarrena proposatzen du, nahiz eta esan hirua baino gutxiago ezin duela eduki, baina laugarrena ikusten du aproposena. Aipatzen du orain ikusten dela bakoitzak zein intentzio duen euskararen alde. Azken finean euskarari horrelako kasuetan laguntzen zaiola, zeren hau habilitazio nazionaleko plaza bat dela, Udalean horrelako hiru plaza daudela, eta horietatik bik laugarren perfila dute, eta honek hirua. Beraz, galdetzen du zergatik den hori, ea interes bereziren bat ote duten, ez bait du ulertzen. Gaineratzen du ez dakiela zein irizpide teknikotan oinarritu diren neurri hau hartzeko, baina bide honetatik behintzat, EAJ-ren aterik ez jotzeko, ez bait daude ados honekin.

Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran emandako diktamina, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bederatz bi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP), kontrako hiru botorekin (2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU) eta abstentzio batekin (1 PP), honako akordioa hartzen du:

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en sesión celebrada el día 12 de enero de 2018, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP), tres votos en contra (2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU) y una abstención (1 PP), toma el siguiente acuerdo:



Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo	Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones	Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico	Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad
Diruzaina/ Tesorero	1	3	2017/01/01

Ikusirik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2017ko urriaren 31n, egindako txostena, proposamenarekin bat datorrena.

Visto el informe emitido al respecto por la Viceconsejería de Política Lingüística con fecha 31 de octubre de 2017, que es conforme a dicha propuesta.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du bat egiten dutela EAJ-ko bozeramaileak egin duen arrazoiketarekin. Gaineratzen du EAJ eta EH BILDUren artean kontraproposamen bat aurkeztu zutela batzordean. Azaltzen du beraien ustez ahaztu egin zaigula instituzioek noren alde egin behar duten lan, edo noren zerbitzuan dauden, hau da, herritarrei zerbitzua emateko, eta hori da lehentasuna. Aipatzen du herritarrek eskubidea daukatela beraien harremanetan euskaraz aritzeko, eta baita Udaletxe barruko harremanak euskaraz izatea, momenturen batean txostenen bat egin behar baldin bada etab., ba txosten hori euskaraz egiteko. Berresten du hori dela herritarren eskubidea, eta beste guztia beraien iritziz, euskarari oztopoak jartzeko aitzakiak direla.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y dice que como saben los informes de la Viceconsejería de Política Lingüística son preceptivos, es decir es obligatorio solicitarlos, pero no son vinculantes, no obliga a la administración a tenerlos que cumplir. Comenta que en este caso sí se cumple lo que dice el informe, ya que se plantea que no tenía que tener menos del tres, y el perfil lingüístico que se ha propuesto por parte de la presidencia es el tres. Por lo tanto, se está cumpliendo lo que establece el informe de política lingüística del Gobierno Vasco, por lo que no entiende el posicionamiento que están tomando, porque se está cumpliendo lo que dice el informe.

##### **5. - 2017 URTERAKO TAULA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA.**

##### **5.- MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA Y DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2017.**

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du RPT-an bi aldaketa planteatzen direla, bata Diruzainarena, eta bestea Zerbitzuetako Administrari Laguntzailearena. Galdetzen du ea posible litzatekeen bakoitza bere aldetik bozkatzea.





Idazkari jaunak hartzen du hitza eta esaten du berak ezetz esango lukeela, RPT-a bakarria dela, eta bere osotasunean bozkatu behar dela. Aipatzen du beste gauza bat izango litzatekeela, emendakin bat aurkeztea puntu zehatz batekin ados ez daudela esanez, eta hori aldatzea eskatuz, baina bestela bere ustetan horrela dela esango lukeela.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du RPT horretan dagoen elementu bat, konkretuki Diruzainaren kontuan, osagarri bat ezartzen dela, eta beraiek ez daudela jartzeko moduarekin ados, eta horregatik egiten dutela bereizketa hori. Gaineratzen du beste aukera litzatekeela, emendakin bezala planteatzea, osagarri horretan aldaketa bat eskatuz.

Idazkari jaunak hartzen du hitza eta esaten du bere iritziz, momentu honetan bi lanpostu horiek soilik bozkutzen direla, bere osotasunean.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du kasu horretan bozka orokorra emango dutela.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y dice que en el punto está establecido que lo que se vota es la modificación de la RPT, no la RPT en sí, sino las dos incorporaciones de los perfiles lingüísticos que se marcan.

Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran emandako diktamina, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bederatzi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP), kontrako hiru botorekin (2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU) eta abstentzio batekin (1 PP), honako akordioa hartzen du:

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en sesión celebrada el día 12 de enero de 2018, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 2 ADLOP), tres votos en contra (2 EAJ-PNV, 1 EH BILDU) y una abstención (1 PP), toma el siguiente acuerdo:

Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo	Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones	Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico	Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad
Zerbitzuetako Administrari Laguntzailea/ Auxiliar Administrativo de Servicios	1	2	2017/09/12



Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo	Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones	Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico	Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad
Diruzaina/ Tesorero	1	3	2017/01/01

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du garbi geratzea nahi duela beraien kontrako bozkak zein oinarri duen. Aipatzen du ados daudela Zerbitzuetako Administrari Laguntzailearen kasuan egiten den aldaketarekin. Beraz, nahiz eta kontrako bozka eman, kontrakotasun hori ez dago lotuta lanpostu horrekin, baina bai Diruzainaren kasuan planteatzen den aldaketarekin. Alde batetik lehen esan duen bezala, ez daude ados perfilarekin, baina RPT-aren proposamen honetan bada goela beste elementu bat, beraienez larria dena. Azaltzen du Udal honek duen arazoetako bat dela, noizbait heldu beharko diola horri, eta orain aukera berri bat galtzen dutela hori egiteko, hau da, oro har, osagarrien kontua. Jarraitzen du esaten osagarri batzuk daudela ezarrita, batzuk legetik gora jarrita, beste batzuk berriz egokiak izan daitezkeenak, eta kasu honetan %20 aurreikusten dela postu honentzat, eta ez dutela esaten desegokia denik, baina agian egokiagoa izango litzateke %25a, edo %7a. Gaineratzen du Udal honetan osagarriak halako moduan ezarri izan direla, eta historia pixka bat egiten, 1993ko Pleno bateko akta bat duela, non, hainbat osagarri ezartzen dituen. Kasuren batean %30ekoa, beste kasu batean %25a, eta konkretuki Diruzainari dagokionez honakoa esaten dela: *"por acuerdo adoptado en su día, le era de aplicación la dedicación exclusiva en función de la aprobación de la valoración de puestos de trabajo. Se propone le sea retirada dicha dedicación exclusiva, y considerarla a todos los efectos como el resto de los empleados"*. Aldaketa hori ematen dela dio, hau da, Diruzainaren postuan osagarria kentzen dela, eta beste lanpostu batzuetan jartzen da, kasu batzuetan %30arekin, legez gainetik. Eta ematen den argumentazioa honakoa dela: *"previamente se ha negociado individualmente con los técnicos que más adelante se indicaran, las condiciones particulares a aplicar a cada uno de ellos"*. Azaltzen du, honen arabera, osagarri horiek teknikoekin izandako negoziaketa indibidual batzuen ondoren jarri edo kendu zirela. Gaineratzen du Udaletxe honetan noizbait entzun izan dutela "pacto de caballeros" hitza, agian "de damas", eta galdetzen du jakin nahiko luketela ea zer zegoen paktu horien atzetik, edo agian hobe ez jakitea. Baina esaten dutena dela, dirudienez akta honen arabera, osagarri horiek inongo arrazoiketarik gabe ezarri zirela. Esaten du geroago beste akta batzuk daudela, RPT-aren mota guztietako aldaketekin, eta denborarekin, beste osagarri batzuk ere sortzen direla, Kulturako Teknikariarena, %15ekoa momentu batean, orain %20a, Errekaudazio Teknikarien plaza sortzen da, hasieran osagarririk gabe, baina gero %20a jartzen zaiola eta Diruzainak osagarri gabe jarraitzen duela, etab. Segitzen du esaten, ondoren, beste lanpostu batzuetarako sortzen direla osagarri horiek. Azaltzen du, beraien ustez osagarriak beharrezkoak direla kasu batzuetan, gainera gaurko RPT honetan badaudela lanpostuak osagarri hori beharko luketenak, baina eskatzen dutena ehuneko horiek modu objektibo batean ezartzea dela, eta ez momentuko Alkatearen komenientziaren, gustuaren, edo ez dakit zeren arabera. Betiko arazo hauek konpondu beharrean betikotu egiten dituztela salatzen du, eta horregatik beraien kontrako bozka.



Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 09:33 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 09:33 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.